

1964-1969: hiri-kulturaren bila

Sarrera: «Bi urte... eta ba-gera berriz ere»

Horrelaxe hasten da *Jakin* 16.a, 1964eko maiatzean, baimen berriarekin kaleratzean.

Bi urte luze aldizkaririk gabeko haiek! Egia esan, bi urte pasata egon da *Jakin* bere aldizkaririk gabe: zehazki, 1961eko abendutik 1964eko otsailera. Aldizkaririk gabe, baina, zertan esan ere ez, *Jakin* taldeak funtzionatzen jarraitu du, ez da desegin, ez bertan behera hil.

Bi urte horietan bizpahiru frontetan lanegiten du *Jakin* eki-poak.

Hasteko, nahitaezkoa zen aldizkaria erdiestea. 1962an baimena eskatu genuen, eta geroztik Administrazioak jarritako oztopo eta eragozpen guztiak gainditu genituen etsi gabe. (Ikus baimen-gorabeherak *Jakin eta prentsa-legea* sailean).

Bizkitartean, zernahi lanetan murgildurik genbiltzan. Batzuk aipatzeko: urteroko bilkura orokorrekin jarraitu genuen. 1962an L. Villasanteren «Kristau Fedearen Sustraiak. Jainkoa» publikatu genuen; urte horietantxe prestatu genituen inprimategirako «Europa» eta «Filosofiaren Kondaira» liburuak, 1964ean eta 1965ean respective argitara emanak. Eta batez ere azpimarratu nahi duguna, hau da: aldizkariaren faltaz ere ez genion, ekipo bezala, idazteari uko egin. Arantzazuko *Jakin* eki-poak, Luis Mitxelenak eskatuta, *Egan*-en idatziko du urte horietan. 1962an

3 artikulua idazten dituzte J. Intxaustik, J. Azurmendik eta I. Olaberriak. Eta 1963an askoz gehiago: 12 artikulua, hauen artean: J. Azurmendi, P. M. Zabaleta, J. M. Regillaga, P. M. Zabala, J. Intxausti, A. Oiarzabal, J. Arzuaga, J. M. Torrealda.

Kuriosoak: *Egan*-en idazten duten hauek berauek dira (bat salbu), hurrengo urtean, 1964eko lehen zenbaki berria osorik idazten dutenak.

Zenbaki berriekin, bi urtetako parentesiaren ondoren, bizialdi berri eta emankorra hasiko du *Jakin*-ek, 1969ko abuztuaren aldizkaria atzera debekatu arte. 1964-1969: 6 urte bakarrik, baina bizi eta aberats gertatuko direnak.

Sei urte horiek bertagotik aztertzeke, 3 aldi bereiziko genituzke, bina urtetako iraupenekoak:

- lehenengoa: 1964-1965, *Jakin* martxan jartzen da.
- bigarrena: 1966-1967, *Jakin*, aldizkaria eta ekipoa, krisian dago.
- hirugarrena: 1968-1969, bide berrian ausartki abiatzen da *Jakin*, aldizkari eta ekipa berriekin.

1. JAKIN berriz plazara: 1964-1965

Zuzendaritza berria

1964eko otsailean, horrenbeste denbora itxaron ondoren, azkenean ustekabe bezala harrapatzen ditu jakinlariak aldizkariaren baimenak. Baimena noiz zetorkigukeenik ez, ba, jakin. (Eta, agian, etorriko zenik ere sinesten ez). Dena den, behin baimena eskutan, derrefente batetan antolatzen da lehen zenbakia, maiatzerako. Izan ere, baimenaren egunetik hiru hilabete-reko epearen barruan irten behar zuen aldizkariak kalera, lege-obligazioz. Idazle guztiak, horregatik, Arantzazukoak bertakoak dira, hamaseigarren zenbaki honetan, kanpoko laguntzak antolatzeke ez bait zegoen astirik. (Hurrengo zenbakian, berriz, idazleen jatorria oso bestelakoa da: % 28 bakarrik da Arantzazukoa, eta % 72 handik kanpokoak).

Jakin-en hamar urteak zirela eta, Joxe Azurmendik idatzi zuen (10, 1) «irten den bakoitzean berriro sortua» dirudiela

Jakin-ek. 1964ean behintzat bai. Ez dira alferrik igaro bi urte aldizkaririk gabe. Tresnarik ezak dakartzan ondorioak, bi mailatan pairatu ditugu bereziki.

Jakin-en talde zuzendariaren mailan lehenengo, eta batez ere hortxe beharbada, nabari da problema. *Jakin* «zaharrea» lan egindako bat bakarra dago Arantzazun, Joxe Azurmendi, eta berau ere ez luzarorako. J. M. Zabaleta eta J. M. Torreal dai estudiante gazteek ez dute *Jakin* aldizkariaren esperientziarik ez eskarmenturik. *Jakin*-en barne-tradizioak badu hemen, pertsona aldetik, halako eten (?) bat.

Bi urtetako hutsune honek idazle-mailan ere ekarri du berrikuntzarik. *Jakin*-en idazle-iturria aldatuz doa. Aurrerantzean, apaizgaiek gutxi idatziko dute, beste arrazoi askoren artean, bi hauengatik: batetik, seminarioetako barne-krisiagatik; eta bestetik, aldizkariaren geldiunearen erruz aldizkariak kontakto eta harreman asko galdu egin dituelako: jendea aldatu egin da eta segidarik ez.

Idazleak ere berriak

Idazleen aldetik begiratuta, urte hauetako daturik nabar-menena, beraz, Seminarioetako parte-hartzearen gutxitzea izan daiteke. Biderdian dago *Jakin* momentu honetan: Seminarioetako laguntzarik gabe, eta laikoen errelebua oraindik ziurtatu gabe. Horrek egiten du *Jakin* «Arantzazukoegi», J. Azurmendik lehenengo (21, 6) eta Zuzendaritzak berak hurrengo zenbakian (22, 4) aitortzen dutenez. Laikoen pisu espezifiko gora doa bigarren zenbakitik bertatik hasita: bi urteotan, 1964-1965, idatzi dutenetatik, % 30 Arantzazukoak dira, % 22 bestelako apaiz, fraide zein seminarista, eta % 48 laiko.

Gaien tratamendua

Azalez, neurriz eta tamainuz, 1961ean inprimategian ateratako aldizkariaren jarraipen hutsa da oraingo hau. Barne-egiturari dagokionez, haatik, tradizio osoarekin hausten du. Ordu-rarte sailetan banatua izan da beti *Jakin*. Aldi berri honetan, ostera, politika, teologia, kultura, filosofia, hizkuntza, dena nahasian dator, ordenu jakinik gabe.

Gaien aldetik, pasadizioan gaude. *Jakin* «zaharra» orain-

dik presente dago, eta «berria» sortzen ari: hizkuntz eztabaidek (gramatika, ortografia) pisu handia dute oraindik (11 artikulua bi urtetan), nahiz ez luzaroan (1967-1968 urteetan 3 lan baka- rrik daude gai beretaz); teologia eta filosofia moteltzen ari dira. Bestelako jitea hartuz doaz orain lanak: arinagoak, aktua- litateari (politiko nahiz kulturalari) lotuagoak, unean uneko ikasketen inguruan baino idazlearen interesen funtziotan egina- goak, labur esateko.

Jakin-ek urte horietan egindako lana ezin dugu hedatsuki azaldu hemen. Bat aipatuko dugu, nabarmena gertatu bait zen. 1965eko urtarrileko zenbakian, «Baiona'ko Biltzarraren Eraba- kiak» publikatzen du *Jakin*-ek. Eta argitara ematearekin batean, erabaki hauek betetzera behartuko ditu bertako idazleak oro:

«Baiona-ko Euskal Idazkaritza-k lan handi bat burutu du. Euskal literaturaren batasunerako urrats luzea. Beharrezkoa. Ondo edo gaizki emana? Ez dugu juzgatzen.

Dena dela, JAKIN-ek erabaki hauek guztiak onartu egiten ditu, eta bete egingo ditu. Beraz, gaurtik aurrera, datorren alean hasita, JAKIN-en lege hauek obligatu egingo dute.

JAKIN-en nahi duenak idatzi dezake, edozein euskalki ta estiloarekin. Baiña, Euskal Idazkaritzak esana JAKIN-ek bete egingo du. Horregatik, JAKIN-era etorriko diren artikulua arau horietara lotuko dira. Beraz, JAKIN, gure aldizkarian, idazten duena obligatuta dago lege hoen betetzera.

Hemendik aurrera, nahiz idazleak erabaki hauek gorde ez, eta artikulua lege hoiek alde batera utzita igorri, JAKIN-eko zuzendaritzak zuzendu egingo ditu».

Erabakia bete eta betearaziko duen organu bakarra zen ar- tean *Jakin*. Urteen aldea atera die beste aldizkarietara. Hauxe da askorentzat (eta guretzat) *Jakin*-en meriturik handienetako bat, eta berauxe, ziur, askok sekula barkatuko ez dioten «bekatua».

2. JAKIN salmentan: 1966-1967

10. urtemuga

Jaiotzatiko zenetik 10 urte betetzen ditu *Jakin*-ek 1966an. Urtemuga hori ospatzeko, zenbaki berezi bat publikatzen dugu koloretan, inprimategia eta dena aldatuz: Arantzazukotik Bil- boko Ellakuriarenera goaz. Gertakari honen kariatz, azaleko

argazkien sistema baztertu, eta Xabier Egañaren marrazkiekin hasten gara, urtero aldatzeko asmoz.

Jakin-en hazkuntz krisitatzat eman ditzakegu bi urte hauek. Joan Mari Torrealдай eta Joan Joxe Olaberria eta, gero, hau berau eta Joxe Ramon Beloki dabilta zuzendaritzan.

«Herriarekin bizitzen» hasi da *Jakin*, bere ustez behintzat. Sekula baino argiago ikusten du «herri gizonen», «euskal gazterien», «militanteen», «unibertsitarioen», «estudianteen» aldizkaria izan behar duela. Eta momentu horretantxe, hain zuzen, «mundu» horixe da denetan astinduen, politikan (PNV, ETA, Filipismoa, espainolismoa), sozialismoan (experiencia desberdina), erlijioan (teologia berria, ohitura-aldaketa, seminarioen hustuketa), etab.

Problematika honen aurrean, *Jakin*-en Zuzendaritza desbordaturik aurkitzen da. Ez informaziorik ez formaziorik du aski, krisi honi buru egiteko. Auzipean dugu dena: zuzendaritzaren egitura bezala, aldizkariaren definizioa eta eginkizuna ere. Bere burua kuestionatzen eta formulazio berriaren bila eman ditu *Jakin*-ek bi editorial luze eta bilera orokor oso bat.

JAKIN «umezurtz»

Jakin-ek ez du buruzagitarik! Hona Zuzendaritzan dabilen jendearen sentiera, edo, nahiago bada, konstatazioa. «Mintza gaitzezen klaroki: Gure ustez, JAKIN-ek ez du izan benetako zuzendaritzarik inprentan ateratzen hasi zenetik. Orain hiru urte zen hori! Esateko, herriarekin bizitzen hastean bertan gelditu zen JAKIN umezurtz» (22, 3).

Fraide estudiante gazte batzurenzat, «katxarro» handiegia zen *Jakin* 1966an: «JAKINEk ba du izen bat asko kostata irabazia. Eta ba du bere gain helburu eta konpromiso handi bat Herriarekin» (22, 5). «Izen», «helburu» eta «konpromiso» hauen aurrean guztiz ahul eta indarge ikusten dute beren burua estudiante gazteok: «Gure posibletasunen goitik dagon errebista» (22, 4) da *Jakin*. Exijentziak handiak eta indarrak eskas. Talde zuzendariaren ezina, bateko. Eta besteko, *Jakin*-en helburuen mamitzea dago tartean. «Deszentralizatu» eta «desklerikalizatu» egin nahi da *Jakin*, zuzendaritzan eta aldizkarian. Zuzendaritzako Joan Joxe Olaberriak honela ematen zuen «*Jakin* orain artean eraman dutenen postura aldizkariaren aurrean: Ale-

gia, JAKIN ez dela ia —ez duela izan behar— fraille eta apaizgaien kaseta soillik. Suplentzi-lana izen dela eurena, orain artekoa. Ta, heldu dela ordua, subsidiario eginkizuna esku egokietan uzteko».

Zeintzu ote dira «esku egoki» horiek, Zuzendaritzak berak «prailleen zuzendaritza kaltegarri-edo gertatu zitekeela errebitarentzat» pentsatzen duenean?

Ikus dezagun astiroago gertakarien haria.

Ohitura zenez, urtero kolaboratzaileen bilera ospatu ohi zuen *Jakin*-ek. 1967an ere bai, noski. Baina aurten *Jakin* birpentsatzeko gai monografikoarekin bildu zuen jendea Zuzendaritzak. Deiari erantzunez, talde «politika» biltzen da Oñatiko Bidaurretan irailaren 10ean. Rikardo Arregi eta beste batzuekin mintzatua zen ordurako Zuzendaritza. Bilera horretan, talde zuzendariaren postura ez dago «entregismo»tik urruti, amore emanda dago, aldizkaria «esku egokietan» uzteko gertu.

Zuzendaritzan zebilen jendearen azpi-arrazoiak ugariak dira, eta horien artean ez txikienak, inpotenziaren sentimendua, klerikalismoaren konplexua, «politika»ren lilura, arazo pertsonalak, etxebarneko katramilak («gaurdaiño, burukomiñak eta eragozpenak bakarrik sortu dizkigu, bai gure ixtudioetan bai gure bizimoldean» (22, 4) eta zenbait talde politikoren aldetik *Jakin*-ekiko interesa. Bat baino gehiago zebilen artean *Jakin*-ez jabetu nahian, Oñatiko bilkuran antzeman zitekeenez, eta Karlos Santamariak guk baino hobeto zekienez. Azkenean hautatu zen bidea, Zuzendaritza «kolektibo» baten antzekotzat har dezakegu, hots: lehengo zuzendaritzari Redakzio-ekipo eragile bat eransten zaio, izen eta eginkizun hauekin: Rikardo Arregi (politika jeneralerako), Karlos Santamaria (zientzia eta pentsamendurako), Andoni Lekuona (soziologiarako), Xabier Kintana (biologia eta eboluziorako), Ibon Sarasola (literatura, poesia, zinema eta teatroarako), Jose Antonio Arana (euskal legedi eta kondairarako (25, 62).

JAKINen eginkizuna

Jakin-en krisia, zuzendaritzarena adina da aldizkariarena berarena. Zein da, izan ere, *Jakin* «berria»ren eginkizuna?

10 urte bete ditu, lan handia du eginik, balantze positiboa

du. Baina aurrera begira, zer? Hamargarren urteko zenbaki berezian (21) Joxe Azurmendik egin sarrera komentatuz, R. Arregik Z. *Argia*-tik hiru eginkizun posible seinalatzen dizkio *Jakin*-i (174 zenb.): teologi aldizkaria izan daiteke, edo «euskaldun katoliko pentsamenduaren aldizkaria», edota, hirugarren aukera, «ideialogi guztietako, katoliko ala ez, jendeen arteko elkar izketarako aldizkaria».

Hiru alternatiba hauen aurrean, *Jakin*-ek ez du duda-mudarik: hirugarrena da gurea. Urte osoa igaroko du bere burua alternatiba horren argitan kuestionatzen. Azkenik, irailaren 10ean Oñatiko bileran aurkituriko formulazioarekin konformatzen bide da Zuzendaritza:

- «JAKIN'ek bere ideia bereziekin osaturiko programa serio bat presentatu behar du euskal kultura alorrean. Ez ideia zeharo determinatuekin (ba hau ez litzake posible, ezta komeni ere), baiña bai pentsamentu aski pertsonalekin. Hau guztia sinzeritatean eta egiaki egin ditekian neurrian, noski» (25, 63).
- «Eremu hontan dauka JAKIN'ek ere bere posibilidaderik handiena eta egitekorik premiazkoena: euskaltzaletasunaren une kritiko eta kezkatu huntan batzuen eta besteen lokarri bilakatuko den funtsezko giroa sortzen lan egitean» (25, 62).
- «JAKIN'ek debate edo polemikarako 'tribuna libre' antzeko izan behar du. Izan ere ba dago-ta holako zerbaiten premia egungo euskaltzaleon artean, postura zerratuak alde batera utzi, ta benetako prolemak elkarrekin eta egun argitan dialogatzen hasteko» (25, 62).

Horrela izan nahi du *Jakin*-ek «euskaldunen benetako kultura kasetan» (25, 64) eta «Herriaren iritzia libertatean formatzeko» (25, 62) tresna.

Nola harildu, baina, ideia eta asmo hauek aldizkariaren formula erabilgarri edo operatibo batetan? Horra, jadanik udazkenean, Zuzendari berriak askatu beharko duen korapiloa.

JAKIN jadanik eritzien plataforma

Ametsek, zalantzek, asmoek, programazio-bilaketek ez diote, halere, lan praktikoari lurrik jan bi urte horietan: 8 zenbaki publikatzen ditugu, 1966an 3 eta 5 hurrengoan. Goitik dabilta asmoak: «Euskal Herriak ezagutu ahal izango du aspaldi amestu

zuen euskal kulturazko agerkaria, gure herriaren pultsua barne-
tik neurtuko duena» (23, 2). Lan-gogoa ere goitik, urtean 5 zen-
baki ateratzeko erabakia hartzen bait da, *Jakin*-en historian le-
hendabizikoz (eta ez luzarorako, tamalez, urtebete soilik iraungo
bait du erabakiak).

Ikusi dugunez, eritzien plataforma gisako zer bait izan nahi
zuen *Jakin*-ek bere programazio berrian. Eta, egia esan, dagoe-
neko bazen izan 1967an bertan. Urte honetakoak dira Rikardo
Arregiren «Ezker berriak» eta Txillardegiren (Igara) «Sozialis-
moa modan egon zan» artikulua sonatuak. Gogora ditzagun, baita,
Rikardo Arregi beraren «Euskaltzaleen Jainkoa ill behar dugu»
eta Joxe Azurmendiren «Zergatik eta zertarako euskaldun» ar-
tikuluak ere, eta «Che Guevara»ri eskainitako dossierra. Majo
astindu zituzten bazterrak denen artean.

Momentuko arazorik bizienak eta larrienak planteatzen dira
orain *Jakin*-en orrialdeetan, eta gazteen lumarik hoberentxoenen
bidez: J. San Martin, J. Azurmendi, J. Intxausti, X. Kintana,
R. Arregi, J. M. Torrealdei, I. Sarasola, R. Saizarbitoria, eta
beste.

3. «Etapari berri baten aurrean»: 1968-1969

JAKIN Donostiara

«Etapari berri baten aurrean ikusten dugu geure burua»,
idazten du 1968ko editorialak (29, 2). Aldi berri bat. Bat gehia-
go? Berritasunaren kontzientzia hain zoli honek, oraingoan be-
deren, badu begien bistako frogarik:

- *Jakin* ez da gehiago «ikasleen» aldizkaria. Hasteko, 1967ko
udazkenean, Joan Mari Torrealdei, Zarautzen irakasle, egi-
ten da aldizkariaren kargu. *Jakin*-ek lehen aldiz du zuzendari
iraunkor, ez-estudiante eta (nolabait esan) «profesional» bat.
Orain, gainera, ez ikasleentzat da bereziki, eta ez ikasleek
egina. Apaizgaien saialekua zen aldizkari hura definitiboki
iragana da.
- Lehen aldiz ateratzen da Arantzazutik *Jakin*-en egonlekua.
Donostian jartzen dugu Redakzioa; Zuzendaritza, lehenengo
Zarautzen eta gero Tolosan, eta Administrazioa bakarrik
Arantzazun.

- Lehen aldiz du *Jakin*-ek Redakzio-Kontseilu formala.
- Aldizkariaren itxura, taxua, presentaera, barne-egitura... dena aldatzen da 1968ko lehen zenbakiarekin. Frantziako *Esprit* aldizkari ezaguna dugu begien aurrean, eredutzat.

Aldakuntza hauek denak *Jakin*-en historialdi berri baten lekuko eta fruitu dira. Adieraz dezagun gauzak nola gertatu ziren gizonen eta projektuen aldetik.

1967ko udazkenean, Joan Mari Torrealdai, *Jakin*-ez arduratzean eta lehen urratsak ematen hastean, zera ikusten du: Oñatiko bilerako Redakzio kolektibo hura «irtenbide» bat izan zela, baina ez «soluzio»; ez zen operatiboa. Ez geunden zeroan, halere. Hor zeuden K. Santamaria, R. Arregi eta beste. Hauei eskerrak, honela osatu zen *Jakin* taldea: Zuzendari: J. M. Torrealdai; Redakzio-buru: K. Santamaria; eta Redakzio-lagun: R. Arregi, Ibon Sarasola, Andoni Lekuona, Andoni Iturria, Ramuntxo Kanblong eta Piarres Xarritton. Idazle-Kontseilu koherente, ireki eta langilea izan nahi zuen honek. Hamabostero edo hileroko biltzen zen Donostian. Denborak erakutsi zigan, Kontseilu handi honen barruan, beste Kontseilu txikiago, arinago eta dinamikoago baten premia zuela aldizkariak, eta horrelaxe osatu zen Zuzendariaren, Karlos Santamariaren eta Rikardo Arregiren artean.

Zuzendaritza berri honen lehen bereizgarria, lana da. Ez da barnera begira bizi, ez du bere burua gehiago kuestionatzen. Kultur aldizkari normaldu baten jitea hartu nahi du *Jakin*-ek, eta hala da izan: «laikoa» da idazleen (% 67) eta gaien aldetik, hirian kokatua dago; hona azken urteetako ametsen helmuga.

Kultur indarren eta talde politikoen onarpena gurekin genuen. Ez genuen etiketarik, milagro bat badirudi ere garai haietan. Apoiatu beharra sentitzen zuen askok. Txillardegiren eritzi honekin bat zetozkeen asko: «...gero eta aldizkari gehiago dago euskeraz (...) *Jakin* onena dan ezkerero, dana dala, denok batez ere «*Jakin*» indartzera joan beharko genuke, nere ustez» (1968-IV-17). Kontsentsu-giro honetan mugitzen ginen. «*Jakin* onena» zenaren usteari eta Alfabetatzearen inguruan mugitzen zen gazteriari esker, harpidedun multzo ederra biltzen dugu: mila bat harpidedunetara iritsi gara (29.aren eta 31-32 zenbaki bikoitzaren 1.200 ale ateratzeraino heldu ginen).

Arrakastaren gakoak, honetan datza: hazaldi berria, gerraos-

teko belaunaldia aise identifikatzen da urte hauetan *Jakin*-en egiten diren planteoekin. Bere kezka eta programen plataforma ikusten du hor. Eta izan ere hala zelakoan gaude, egungo egunetik begiraturata ere. Plazara atera zituen gaiak, tonuak, ausardiak, mamitu zituen programek eta proklamek hazaldi berriaren eta R. Arregiren marka daramate.

«Gaurrari eta herriari lotuak»

Aldi berri honetako lehen editoriala, honela amaitzen da: «Gaurrari eta herriari lotuak egon nahi dugu». Hartzen ditugun jokaeretan bezainbat aukeratzen ditugun gaitan, atxekimendu horixe lortu nahian gabiltza.

Formula berriko *Jakin* honen lana, oker handirik gabe esan dezakegu, argitara eman dituen lanen barne-balioagatik baino gehiago, hartu dituen posturengatik eta egin dituen planteoengatik neurtu beharko litzateke. Oraindik gaur egin ohi dugun hainbat planteok ez du orduko «pentsaera» gainditu; eta areago, oraingo ikusmolde askok han dute iturburua.

Rikardo Arregiren eraginez batipat, «danon aurrean eta garbitasun guztiarekin» jokatu behar genuela-eta, hasieratik beretik ekin genion «pozik... gure asmoen berri» emateari (29, 3). Lehen zenbakiko editorialean berean, hedatsuki azaltzen dugu gure pentsaera politikaz, gizarte-arazoaz, erlijioaz, kulturaz, hizkuntzaz.

Baina *Jakin*-ek, kultur aldizkaria denez, kultur barrutian eduki nahi du intzidentziarik handiena. Monografia oso bat ateratzen dugu horretaz (desterruan egina eta barruan osatua), eta editorial antzo ematen dugu gure geure pentsaera. «Kulturgingitzaren planteamenduak» idazlanean ari gara espreski horretaz eta, ez gaitezen hemen luza. Bakar-bakarrik, hiruzpalau kontzeptu azpimarratu nahi ditugu, gure historialdi hau, eta agian euskal kulturaren geroko zenbait bide, ulerterrazago gerta dakizkigun.

Hitz gakoak, «planifikazioa» eta «profesionaltasuna» dira, gerora bide luzea egingo duten kontzeptuak biak. Amateurismoaren eta espontaneismoaren aurka, jende profesionala, «libertua», «espezializatua» behar du euskal kulturak. «Gure kulturaren dena egiteko hutsa, guztia 'eginkizun'» (34, 2) bait da. Horregatixe, planketa bat sortzeko, programa egiteko ordua heldu da. Programazio honek hainbat kultur-talde begiratzen du: Eus-

kaltzaindia, Idazleen Elkarte, Ikastolak, Alfabetatzea, Argitaldariak...

Garai (eta editorial) honetakoak dira, baita, euskal kulturaren aurreraletasunaren eta radikaltasunaren teorizazioa, eta euskal kultura ukazio (agonia) bezala ulertzea ere: «Euskal kulturak, afirmazioa den ukazioa du sustraitzat. Horregatik bere egitekoa, kontrajartzea izanen da: erakundeei, herria; kultura filisteoari, kultura iraulgilea; kultura aristokratikoari, kultura herrikoia» (34, 4).

«Leit-motiv» gisako kontzeptu hauekin operatzen dugu urte hauetan *Jakin*-en. Aldizkarian eta bestela. Aldizkaritik kanpo ere bai, zeren talde-zuzendariaren ekina ez bait zen aldizkarian agortzen; Euskal kultura animatzeko bestelako lanik eta proiekturik ere gauzatzen bait genuen. Bi gogoratu nahi genituzke bereziki: bata, E.I.E. (Euskal Idazleen Elkarte) sortu aurretik, Idazleen Elkarte bat sortzeko aurreprojetua mamitu zuen Rikardok *Jakin*-en, «ertsiegia» zela eta, bazterreratu genuena; eta bigarrena, hementxe pentsatu genuen «Que sais-je» delakoaren antzeko projektua euskaraz, geroago *Lur* argitaletxe sortu berrian gauzatu nahi izan zena.

1968-1969 urteetako zazpi zenbakietako gaien azterketak ez du aldarrikaturiko asmoen egokitasuna eta bidea gezurtatzen. Monografiaren tituluak lekuko: «Jakintza berria» (Linguistika, Aljebra, Estrukturalismoa), «Euskal Herriko iru hereje» (Baroja, Unamuno, Salaberria), «Euskera idatziaren batasuna» (Ermuako Biltzarrea), «Lehen Karlistada», «Euskal kultura», «Gaurko pentsalari bat» (Marcuse). Beste lau monografia ere martxan genituen: «Ipar Euskal Herria» (gero «*Jakin* Sorta»n aterea), «Europa», «Jainkoaren heriotza», «Medikuntza».

Eta halako batean, heriotza. Bi heriotza izan ditu *Jakin*-ek 1969an. Bata, Rikardo Arregirena, uztailaren 10ean, bide-istripuz; eta bigarrena, aldizkariarena berarena, abuztuaren 29ko debekuz.

«Gaurrari eta herriari lotua» bizi nahi izan zuen *Jakin*-ek. Eta lortu zuelakoan gaude. Atxekimendu horrek ekarri dio arrakasta (euskal kulturari) eta heriotza (Madrilen). Autozentsura ez da aski izan, hikuntza «eliptikoak» ez du Administrazioa engainatu, Marcuse bere izenez aipatu ordez zenbaki osoan «M.» jartzeak ere ez.